

GARAPEN IRAUNKORRAREN ERAGINA BASO SEKTOREAN. FUNTZIO EKOLOGIKOAK BIZKAIKO BASO POLITIKAN

Tesiaren egilea: Iñaki Esparta Soloeta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Ekonomia Aplikatua I

Tesi-zuzendaria: Mikel Zurbano Irizar eta Xabier Renteria Uriarte

Tesiaren laburpena:

Tesi honen helburu orokorra *garapen iraunkorrak* baso-sektorean duen eragina aztertzea izan da, eta ildo horren baitan, *baso-kudeaketa iraunkorraren* kontzeptuak Bizkaiko baso-politikan duen eraginean sakontzea. Lan honetan funtzio ekologikoak izan dira funtsezko aztergai, baso-politikak funtzio ekologikoak zein neurritan hartzen dituen aintzakotzat aztertzea izan baita lanaren berariazko helburua.

Bizkaiko baso-politikak funtzio ekologikoen aurrean produkzio-funtzioa lehenesten duela izan da lanean zehar erabilitako hipotesi nagusia, eta Ekonomia Ekologikoak eta Institutuzionalismoak eskaintzen dituzten ikuspegia eta metodoa erabili dira analisia burutzeko.

1992ko Nazio Batuen Ingurumena eta Garapenari buruzko Goi-bileran, klima-aldaketa eta bioaniztasuna galtzea oihan tropikalen deforestazio-prozesuarekin lotu ziren. Arazo horiei aurre egiteko, kontzeptu berri bat garatu zen goi-bilera horretan: baso-kudeaketa iraunkorra. Kontzeptu hori oihan tropikaletan aplikatzeko sortu bazen ere, laster izan zen onartua eta erabilia herri garatuetako baso-politiketan ere.

Horren haritik, garapen iraunkorraren ondorioz sortutako *baso-kudeaketa iraunkorra* kontzeptua izan da lan honen ardatza. Kontzeptu horrek basoen ekosistemaizaera eta beren multifuntzionaltasuna jartzen ditu lehen mailan. Ondorioz, zur-produkzioaz gain, kontzeptu hori ingurumenari eta aisialdiari loturiko zerbitzuei balio ekonomikoa eskaintzera etorri da.

Bizkaiko baso-sektorean kudeaketa iraunkorraren printzipioetan oinarrituriko neurriak ezartzea onuragarria izango litzateke, azken hamarkadetan zur-produkzioaren maximizazioa bultzatu duen politikak ekosistemei eragindako kalteak zuzendu ahal izateko. Baina kudeaketa multifuntzionalak zailtasun handiekin egiten du topo Bizkaiko kasuan, jabetza pribatua nagusitzean baso-eredua hazkunde bizkorreko espezieen produkzio intentsiboan oinarritu baita. Lanean zehar sektorearen bilakaera ekonomikoa, politika produktibistaren ondorio ekologikoak, kudeaketa multifuntzionalaren ezarpenak dituen zailtasunak eta kudeaketa hori sustatzeko bide posibleak aztertzen dira, Europako Batasunaren Landa Garapeneko Politikaren eta Ingurumen Politiken testuinguruan.

Lanean lortutako ondorioen artean, ondoko hauek nabarmendu daitezke: (i) baso-jabeen interesen eta eskari sozialen artean sortzen den gatazkan, Bizkaiko baso-politikak zur-produkzioa lehenesten du ingurumenari eta aisialdiari loturiko eskarien aurrean; (ii) kontuan izanik jabetza pribatuak duen garrantzia, Administrazioaren ekarpena ezinbestekoa bilakatzen da kudeaketa multifuntzionalean aurre-rapausoak emateko; eta (iii) baso-kudeaketa iraunkorraren aplikazioa Europako Batasunaren Landa Garapeneko Politikaren eta Ingurumen Politiken baitan hartutako neurrien mende agertzen da neurri handian.